

ataria

2022-04-08 • 1.583. zenbakia
107.6 fm • Ataria.eus

Belabietako bataila, memoria berreskuratuz





AURKIBIDEA

Iritzia Diana De Castro **3**

Elkarrietzeta Helena Baraibar:

«Beharrezko da euskal ikuskeraren beste dimentsio batzuk lantzea» **4-7**

Zientziaren Talaia **8-9**

Asteko Gaia Belabietako bataila gogoan, Karlos Almorzarekin **10-17**

Iritzia Joxe Agustin Arrieta **18**

Agenda **20-23**

PlazanBazan Denbora-pasak **24-25**

Agenda 'Frontona', muina kontrakantxan **26-29**



Azaleko irudia
Jon Miranda Labaien

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzaile eta
lana euskaraz

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.





DIANA DE CASTRO
AEK-KO IRAKASLEA

Milaka euskara

Amurrioko euskaltegiko langilea dugu Agurtzane. Bilbotarra jatorriz, duela hamar urte ezkondu zen bertara. Unibertsitatea bukatu zuenez geroztik, hantxan jardun da AEK-ko irakasle-lanetan, eta hainbat KORRIKA bizi izan ditu barutik. Orain arte ez zaio tokatu, ordea, aurtengoa bezalako erronkarik. Amurrioko euskaldun eta euskaltzaleak ez baitira asko. Bada, erruz egin dute lan aurtan, ukondo ukondo. Beraiei esker, hasi da 22. KORRIKA.

Nafarroako Erriberako euskararen egoera ez da samurra, eta lehen hezkuntzan D ereduari ibili izanagatik ere, nekez mintzatzen da bere hizkuntza kuttunez. Etxean eman ezin zioten euskara ikas zezan, amak Peralta eskolara eramaten zuen egunero. DBHn, berriz, ezin izan du euskaraz ikasten jarraitu. Handitan euskaltegia izena eman behar duela garbi du Aitorrek. Oraingoan, KORRIKA parte hartzea du ilusiorik handiena. Arratsalde eguzkitsu batean, bere herri-
tik, Martzillatik, pasa baita euskaldunon oinatza.

Hurrengo eguneko iluntzean, Muskildiraino iritsi da jende-ostea tipi-tapa. Erramun dago hantxe, jendar-
tean behin behar, ardiak tarte batez belazean utzita. Dagoeneko ez du korri egiteko sasoirik, hala ere, gerturatu nahi izan du, jendetza laketa ez zaion arren. Malkoei ezin eutsiz, korrikalariak herriko kaleetatik pasatzen ikusi ditu, lekukoa berak eraman zuen aldi haren gomuta gozoa bihotzean.

Elizabeth Villabonara iritsi zenean, bazekien, lehenago etorritako Cochabambako auzokide batek esanda, hemen ere bazela bere arbasoen hizkuntza-

ren tankerako bat. Ez zuen, aldiz, hain beharrezkoa izango zenik uste. Hasierako nagia astindu eta euskaltegia izena eman zuenean, ezin zuen imajinatu handik lau urtera hemen egon behar zuenik, hain abegikor hartu zuen herriko sarreran, lagunartean, goiz eta gau gelditu gabe dabilen lasterketa hura noiz pasa zain.

«Elizabeth Villabonara iritsi zenean, bazekien, lehenago etorritako Cochabambako auzokide batek esanda, hemen ere bazela bere arbasoen hizkuntzaren tankerako bat. Ez zuen aldiz, hain beharrezkoa izango zenik uste»

Pirritxen abestietan maiz azaltzen den zerbait da, eta azken boladan amatxori entzun eta entzun ari zaio. Tipi-tapa esaten dute helduek, beraz, mugimenduarekin lotutako zerbait dela ematen du. Parranda usaina ere hartu dio ilargik, zeren amatxok txosnako txanda egin behar omen baitu. Aitatzeko eta ahizpatxoarekin joan beharko du Bulebarrera bere lehenengo KORRIKA harrera egitera.

Gure bost lagun hauek asmatutako pertsonaiak dira; errealitatearekin izan dezaketen edozein antzekotasun kasualitate hutsa da... Ba ote? Seguruena ez. Izan ere, milaka lagun, milaka sentipen eta milaka euskara biltzen ditu zoro zoragarrien festak.

«Euskara irakasteaz gain, euskaldun izatea zer den azaldu behar zaio ikasleari»

HELENA BARAIBAR

IKASTOLEN ELKARTEKO ORDEZKARIA

Ikasleen euskararen ezagutzak eta erabilerak behera egin du ikastetxeetan; orain, Hizkuntza Proiektua berrindartzea da elkartearen lehentasuna, eta Baraibar da hori burutzeko lantaldearen arduraduna

Josu Artutxa Dorronsoro

Egoerarekin «kezkatuta» eta «hausnartu beharrean» agertu da Helena Baraibar (Tolosa, 1960) irakaslea eta Ikastolen Elkartearen ordezkaria. Arlo guztietako irakasleen gaikuntza didaktikoa prestatzen ari dira, Hizkuntzen Trataera integral eta integratua izenez ezagutzen duten lan-ildoarekin.

Zer gertatu da ikastetxeetan egoera honetara heltzeko?

Galdera hori egitea errazagoa da galdera hori erantzutea baino. Zalantzarik gabe, galdera hori egin behar diogu geure buruari, baina gero, horren erantzunak bilatzen, arrazoitzen, eta egoerari buelta eman nahian hasten garenean, askotariko eragin esparruekin egiten dugu topo, baita eragin beharrekin ere. Bistakoa da, ikasleen artean, euskararen ezagutza eta erabilera ez doazela duela 20 edo 40 urte aurreikusten genituen mailan. Baina non daude guzti horren erantzunak?

Batetik, D eredua orokortzen ari da, eta geroz eta

ikasle gehiago ari dira eredu horretan ikasten; ikaragarri egin dute gora ikasleen kopuruek ikasgeletan. Ikaste prozesua zailtzea eragin du horrek, eta ez baliabide aldetik, ezta metodologia aldetik ere, gauzak ez dira behar adina egokitu, geroz eta ugariagoak zaizkigun hizkuntza eta kultura profil desberdinetako ikasleei erantzun ahal izateko, helburua horiek euskalduntzea eta euskal hiztun aktibo bihurtzea denean.

Jakitun gara, hizkuntza minorizatuen kasuan erabilerareagotzeko eta ezagutzan aurrerapen egokia izateko, ezinbestekoak direla hizkuntzarekiko jarrera, motibazioa eta kontzientzia linguistikoa. Gure herrian, guztiok gara gutxienez elebidun, eta euskaraz bizitzea eta egitea hautu bat da, eta hautu bat den aldetik, ezinbestekoa da kontzientzia linguistikoa. Zer gertatu zaigu? Kontua da ez dela nahikoa ikastetxeetan euskara irakastea eta euskaraz irakastea. Euskaldun eleaniztunak hezi nahi ditugula diogu. Hori lor-



Helena Baraibar Laskorain Ikastolako irakaslea eta Ikastolen Elkarteko ordezkaria. **ATARIA**

tzeko, baina, hizkuntzaren ezagutzarekin batera, beharrezkoa da euskal kulturaren eta euskal ikuskera-
ren beste dimentsio batzuk lantzea.

Eta non jarri beharko litzake fokua?

Urte luzez pentsatu izan da, eskola eredu askotan, euskalduntzeko nahikoa zela hizkuntza ikastea. Ingelesa edo frantsesa irakasten dugunean, hizkuntza kode bezala irakasten dugu, baina euskara irakasten ari garenean, kodeaz gain, kulturari dagozkion edukiak transmititzen ere saiatzen gara. Hizkuntza bat jakitea ez da aski erabiltzeko, eta hizkuntza minorizatu bat ikasterakoan ere, ziur ez dela nahikoa kode huts bezala ikastea, beharrezkoa delako hizkuntza hori bere testuinguruan erakustea.

Azken urteetan, badirudi jarrera aldaketa bat eman dela. Hizkuntzen irakaskuntzarako metodologia berriak aldarrikatzen ari dira, baita konpetentzietan hezteko metodologiak ere. Horiek oso probetxugarriak dira, baina badira erreparatu beharreko beste zenbait alderdi ere, hain zuzen, lehen aipatutako hizkuntza kontzientzia esnatzea, batez ere, bigarren hezkuntzako ikasleen artean. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, ikasleen arteko harreman sareak euskaraz eraikitzea da lehentasuna; gero, ikasleari, adinean gora egiten duenean, euskaldun izatea zer den azaldu eta irakatsi behar zaio, baita euskaldun izateko zer behar den ere.

Halaber, euskarak gizartean bizi duen defizit sozio-

IRAGARKI LABURRAK

LAN ESKAINTZA: Pertsona bat behar da Tolosaldean adineko pertsona bat zaintzeko. Egunean lau ordu. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbaki hauetara: 620 53 12 80 / 688 60 83 63.

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik. Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.

linguistikoari erreparatu behar diogu. Eskolak eta ikastolak, izatez, euskararen eremu babestu bat gara, baina nork irakasten du euskara? Oker gaude euskara euskarako irakasleak irakasten duela pentsatzen badugu. Guztiok gara hizkuntza irakasle, hizkuntzarik gabe ezinezkoa delako matematika, fisika edo historia ikastea. Ikasgai horietako irakasleek, baina, zenbait estrategia menperatu behar dituzte.

Euren edukia irakatsi ahala, ikasleek alor horiek baliatu behar dituzte euskararen aurrera egiteko.

Kasu horretan, premia ikaragarria daukagu irakasleak formatzeko lanean, batez ere, konbentzimentuari dagokionez. Esaterako, ezin dut filosofiako irakasle izan, euskarako irakasle izan gabe. Ezin dut filosofia euskaraz irakatsi, euskara irakatsi gabe. Ikasleak ere, euskara menperatzen ez badu, ezingo du filosofia menperatu. Hizkuntza bat ikasteko, denbora luzez egon behar duzu harremanetan hizkuntza horrekin, eta harreman horrek aktiboa izan behar du.

Zein da duzuen sentsazioa? Zer baitetan huts egin duzuela iruditzen zaizu?

Orain arte jorratutako bide batzuk egokiak dira, eta aukera bat izan daiteke horiei eustea, baina bide ho-

«Euskararen zabalkunderako ezinbestekoa da euskara bera erdigunean izango duen ekosistema bat, eta hori ikastetxea da»

rietan, jardunbide batzuk indartu behar ditugu, beste batzuk bideratu, eta beste batzuei ekin. Azken urteotan egindako hausnarketek eta eskura jarri zaizkigun datu objektiboek, agerian utzi dizkigute indartu beharreko lan-ildo batzuk, besteak beste, irakasleen gela barruko esku-hartzea. Oso garrantzitsua da, batez ere, euskararen eza-gutzarekin batera eta euskal kulturegintzaren transmisioarekin

batera, ikasleen arteko harremanak euskaraz eraiki eta mantendu daitezen ahalegintzeko. Ez da nahikoa ikasleak ikastetxera etorri bezala joatea. Ikastetxeak eragin egin behar du, bai ikasleengan, bai irakasleengan, baina baita familiengan ere. Euskararen zabalkunderako beharrezkoa da euskara bera erdigunean izango duen ekosistema orokor bat, eta hori ikastetxea da.

Gela barruko harreman sareez gain, gelaz kanpo ere badira zenbait.

Bai. Eskolako ordurik kanpoko kirol saioak edota aste-buruko aisialdia dira adibide handienak, ikastetxearen bitartez bideratzen direlako; herri mailakoez ere hitz egin genezake. Eremu horietan oso garrantzitsua da helburu batzuk formulatuta egotea, euskara,

ATARIA jarrita Goierri eta Urola Kostako Hitza egunkarietan toan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu.

ikasketa hizkuntza izatetik, gozamenerako hizkuntza izatea igarotzea nahi badugu behintzat. Aisia-zer-bitzuak euskaraz eskaintzeaz gain, erabileran eragingo duten estrategiak ere menderatu behar ditu arduradunak, gazteen erabilera aktibatzeko.

Nola lortu daiteke euskara erdigunean jartzea?

Hizkuntza bat menperatzeko, hizkuntza hori erabiltzen trebatu behar dugu, baina Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara prozesu hori ez badugu egoki bideratzen, ez ditugu bete nahi ditugun helburuak beteko. Zentzu horretan, aurrerapauso handiak eman dira azken urteetan, nahiz eta oraindik badugun zer ikasi eta zer hobetu. Ahozko komunikazioa, adibidez, antzemandako gabezia nagusietako bat da, eta orain, garrantzia berezia ematen ari gara ahozkototasuna sistematikoki lantzeari.

Bigarren Hezkuntzan lan egiten dugun irakasleak espezialistak gara eta badugu uste oker bat: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hasterako eta gure arloaren ezagutza espezifikoetan aurrerapen egokia izateko, ikasleak euskara nahikoa ikasia duela pentsatzea, eta ondorioz, gure kezka ez izatea euskara ikasi behar duela. Hori ez da horrela. Hizkuntza akademikoa ez du barneratua oraindik, eta arloen bidez iritsiko da hura menderatzera. Irakaslea horren jakitun izatea ezinbestekoa dugu, batik bat, gurea bezalako ikaskuntza-ereduetan, zeinetan baden hizkuntza minorizatu bat ere.

Azkenik, DBH edo Batxilergoko ikasleek ezin dute D ereduko ibilbidea amaitu euskararen historia soziala ezagutu gabe. Hori, tamalez, oso ikastetxe gutxitan lantzen da, eta beste pisu bat eman beharko li-



«Badirudi ingelesa, frantsesa eta euskara ikastea gauza bera dela, eta ez da horrela»

tzaioke, kontzientzia linguistikoa deitzen diogun hori jorratuz. Ikasleak euskaldun izatea zer den, hizkuntza minorizatu batean ikastea zer den eta euskaldunok ditugun hizkuntza jarrerak zeintzuk diren jakin behar du, eta horri buruz oso gutxi hitz egiten da, eta oso gutxi pentsarazten da. Badirudi ingele-

sa, frantsesa eta euskara ikastea gauza bera dela, eta ez da horrela.

Zertan diharduzue orain Ikastolen Elkartearen?

Honen guztiaren inguruan, lanketa handi bat egiten ari gara, irakasleen gaikuntza didaktikoa prestatzen, eta ebaluazioan bere isla izatea

nahi dugu. Horrela, arlo desberdinetako edukiak egoki barneratzekotan, ahoz zein idatziz eduki horiek egoki adierazteko gaitasuna ere garatu beharko du ikasleak. Gaur egun, arlo guztietako irakasleek begirada hori izatea dugu lehentasuntzat, datozen urteei begira Hizkuntzen Trataera integral eta integratua izenez ezagutzen dugun lan-ildoarekin; hartara baino ez baikara iritsiko arlo guztietako irakasleak hizkuntz irakasle izatera.

Gabezia handiak ditugu, eta horiek ikastetxeetara helarazten ari gara, baina hau ez da egun batetik bestera gauzatzen den lana, ezta urtebeteen amaitzen dena ere. Urteetako lana da, eta nire iritziz, une honek ondo diagnostikatuta dago, baina aurrera begira, lan handia dugu egiteko. Kike Amonarrizek bere azken liburuan ederki deskribatzen duen bezala, bidegurutze batean bizi gara euskaldunak. Bagara ala ez gara? Egin dugun bideak eta lana egiteko izan dugun estiloak badakigu nora eraman gaituen. Beste zerbait egin dezakegu? Nire ustez bai, eta asko egin dezakegu, gainera, asko dugulako irabazteko.



JOSU LOPEZ-GAZPIO
KIMIKAN DOKTOREA ETA
ZIENTZIA DIBULGATZAILEA

Gora inauterietan!

Datu epidemiologikoe eta denborak ematen duen patxadarekin, inauterietako olatua nahiko argi aztertze modua dugu orain. Hortik atera daitezkeen ondorioak zientifikoki frogatzea zaila da, baina, joera eta gertakari batzuk oso adierazgarriak dira. Ezinezkoa da orain asmatzea zer gertatuko litzatekeen inauteriak ospatu izan ez bagenu edo beste modu batera ospatu izan bagenu, baina, datuen analisiak gertatu zenaren eta ez zenaren ideia nahiko ona ematen digu.

Otsailaren 25ean, Ostiral Mehean, Tolosak aspaldi-ko intzidentziarik baxuena zuen: 412 kasu, 14 eguneko eta 100.000 biztanleko. Azaro hasieratik ez genuen balio hori ikusi eta, momentuz, ez dugu berriro ikusi. Tolosaldeko udalerrri txikiagoetan ere nabarmena izan da inauterietako olatua, esaterako, Zizurkilen, Ibarren, Iruran, Anoetan, Alegian eta Asteasun. Ikuspuntu zientifikotik zaila da frogatzea udalerrri haue-
tan guztietan inauteriak izan direla kutsatzeen kausa, baina, kasu guztietan apirileko lehen egunetan hasi da kasu positiboaren gorakada susmagarria ikus daiteke. Analisi sakonagoa egiteko Tolosako kasura muga-



tuz, aipatzekoa da martxoaren 20an Tolosa zela 1.000tik gorako intzidentzia metatua zuen Gipuzkoako udalerrri handi bakarra (5.000 biztanletik gorakoa).

Badakit, irakurle, agian pentsatuko duzula analisi honek ez duela ezertarako balio. Agian pentsatuko duzu intzidentzia igo zen bezala orain jaitsiko dela eta berriro aurreko egoeran egongo garela laster. Baliteke hori horrela izatea, baina, baliteke inauterietako olatuak iraun duen tartean hainbat bizilagunek gaizki pasa izana. Baliteke horietako batzuk oraindik COVID-19aren ondorioak pairatzen egotea.

Inauterietako olatuaren hasiera otsailaren 26an fin-ka dezakegu, intzidentzia metatuaren joera aldaketa gertatu zen egunean. Egun horretan hilabete eta erdiko beheranzko joera eten egin zen eta une honetan oraindik dirauen olatua gorantz hasi zen. Puntu gore-



nera martxoaren 16an iritsi ginen (1.634ko intzidentziara) eta beheranzko joera nabarmena den arren, oraindik ere olatua ez da amaitu (baliteke bi edo hiru aste barru amaitzea). Gauzak horrela, inauterietan jarraitutako «segurtasun eta prebentzio» neurriei esker, hilabete inguru iraun duen olatua sortu genuen.

Azken hilabeteko datu horiek aztertzeke, oso baliagarria da 14 eguneko tasaren ordezkari 30 eguneko tasa kalkulatzeko. Horrela egiten badugu, azken hilabeteko positiboen kopurua biztanleriarekin zuzenduz, Gipuzkoa osoko 1.000 biztanletik gorako udalerrien artean, Tolosari dagokio, alde han-

«Gauzak horrela, inauterietan jarraitutako 'segurtasun eta prebentzio' neurriei esker, hilabete inguru iraun duen olatua sortu genuen»

diz, podium tamalgarri honen urrezko domina (Zizurkil dago bigarren postuan). Inauterietako olatuan zehar 455 tolosar kutsatu dira datu ofizialen arabera (biztanleriaren %2,3). Zaila da esatea horietako zenbat kutsatu diren inauterien kausaz; izan ere, argi dago ospatu izan ez balira ere positiboak egongo liratekeela. Hala ere, inauteririk ospatu ez duten Gipuzkoako herrien joerak Tolosara ekarrita, Tolosak 180 kutsatu inguru izango lituzke inauteririk gabeko agertokian. Horrek esan nahi du, malgu jokatzuz eta

positibo ofizialen arabera, 270 tolosar inguru kutsatu direla inauterien kausaz. Hori ez da, noski, ikerketa estatistiko sakon baten emaitza, baina, arazoaren tamainaren erakusle ona da.

Inauteriek onura asko ere ekarri omen dizkigute eta ongizate pertsonalerako pizgarria izan omen da. Ziur Donostiako Ospitaleko ZIUko geletako umore eta barre algarak Tolosako zezen plazatik entzuteko modukoak zirela.

Belabietako batailari buruzko ikerketa abian

2023an beteko dira 150 urte hirugarren karlistaldiaren barruan Belabietako bataila gertatu zela. Ikerlarien ustez, egun bakarrean, 600 baja eragin zituen borroka hark. Amasa-Villabonako Udalak ikerketa bat abiatu du gertakari historikoa aztertzeko eta Aranzadi zientzia elkartea dabil lan zientifikoa egiten.

Jon Miranda

Hirugarren karlistaldiaren barruan Belabietako mendiaren magalean gertatu zen 1873. urteko abenduaren 9an. Karlisten eta liberalen arteko borroka odoltsua izan zen, inoiz Amasa-Villabonako lurretan izandako gertakizun militar historiko azpimarragarriena. Zenbatutako baja kopuruak ematen du batailaren dimentsioaren berri: 600 baja izan zirela diote dokumentuek. Herritarren artean gertakizun hauek ia ez direla ezagutzen ikusita, Amasa-Villabonako Udaleko Memoria eta Bizikidetza batzordeak gertakari histo-






riko honi buruzko ikerketa zientifikoa martxan jar-tzea erabaki zuen iaz, aho batez. Aranzadi zientzia elkarteak kontratatu du lan hori burutzeko eta 2023an egingo du ikerketa, hain justu, bataila gertatu zeneko 150. urteurrena betetzen den urtean.

1873an karlisten indarrek hartua zuten Gipuzkoa-ren zatirik handiena. Tolosa, ordea, liberalen eskue-tan zegoen eta hiria setiatzea proposatu zion Liza-rraga jeneralak, orduko erregai karlista Carlos VII.ari. Urte hartako irailaren 16an inguratu zuten Tolosa. Ko-munikazio guztiak etenda, elikagaiak eskuratzeko modurik gabe, liberalek amore eman zezaten bila-tzen zuten karlistek. Loma jeneral liberala behin bai-no gehiagotan saiatu zen Tolosa barrutik setioa pus-katzen eta hilabete haietan Tolosa oraindik eta hobeto inguratu eta presioa handiagoa egiten saiatu ziren karlistak. Besteak beste, Belabieta ingurunean koka-tu zituzten tropak.

Amasa-Villabonako Udaleko Memoria eta Bizikide-tza batzordeak abiatu duen ikerketa gidatzen ari da Karlos Almorza Arrieta (Andoain, 1959) Aranzadi zientzia elkarteko kide eta Historian doktorea dena. «Tolosa ongi inguratuta zeukaten karlistek, haien as-moa ez zen hiria txikitzea edo zuzenean erasotzea. Bizigaiak faltan sumatzen zituztenean liberalak errenditzea espero zuten». Lizarraga jeneralaren aginduetara karlistek kanpamendu bat ezarri zuten Tolosako iparraldean, Villabonan, eta Almorzaren esanetan une horretan zentralitate handia hartu zuen herriak hirugarren karlistaldiaren testuinguruan. Ga-ratzen ari diren lanaren barruan topatu duten doku-mentazioan arakatuta ikerlariak ikusi dute Amasa-Vi-llabonako Udalera fakturak bidaltzen zituztela tropa karlistek. Iruratik, Anoetatik, Alkizatik, Asteasutik edota Amasamenditik iritsitakoak topatu dituzte, baita Uzturretik bidalitakoak ere. «Fakturak non, ar-duradunak han», dio Almorzak.


Soldaduen manutentziorako beharrezkoak ziren fakturak dira udaleko artxiboan topatu dituztenetako asko, eta beste asko, kandelenak. «Nondik nora kan-



delak? Hasiera batean horiek ikusita ez genuen ulertzen zer esan nahi zuen. Gerora atera dugu ondorioa: gauetan zaintza egiteko kandelak behar izaten zituzten soldaduek. Amasako hamar baserriren izenak topatu ditugu modu horretara, eta pentsatzen dugu han zeuden soldaduek zaintza egiteko kandelak eskatzen zizkietela udalari. Horra hor beste ondorio garbi bat: kandelak non, soldaduak han».

Belabietan borrokaldia

Loma jeneralak barrutik setioa apurto ezin zuela ikusita eta Tolosako plaza ez galtzeko, Moriones jeneralaren laguntza jaso zuen. Iruñetik iparraldera egin eta Oiartzungo pasabidetik sartu zen Gipuzkoara Moriones, Tolosako setioa puskatu eta bertan zeuden libe-




ralak laguntzeko. Hernanin kokatu zen armadarekin eta handik saiatu zen kolpea ematen. «Ondo inguratura zeukaten Tolosa eta indar handia behar zuten setioa puskatzeko. Kalkulatzen dugu Hernanitik berrera 10.000 soldadu ekarri zituztela liberelek». Ikerlariek ez dakite zehatz zenbat lagunek borrokatu zuten karlisten bandoan, baina 6.000 inguru izan zitekeela kalkulaten dute. Almorzaren ustez, honenbestez, 15.000 lagun inguru ibili ziren Amasamendin. «Inoiz ez da hainbeste jende armatu ibili borrokan Amasa-Villabonako lurretan».

Modu batera edo bestera, karlistak saiatu ziren liberalen aurrerabidea oztopatzen eta Tolosara bitarteko bidea trabatzen. «Oria ibaiaren gaineko zubiak zartatu zituzten eta dokumentu batean irakurri ahal izan dugunez, Txermin auzo parean ehun metro kubikoko zuloa egin zuten, liberalen artilleria eta zalditeriaren pasoa oztopatzeko». Liberalek, ordea, pixkanaka posizioak irabazi eta Amasamendin gora egin zuten, tropa karlistei aurre egin, eta setioa puskatuz, Belabieta ingurutik Tolosako herrira sarbidea egin ahal izateko.

Belabieta mendiaren magalean, 1873ko abenduaren 9an egin zituzten borrokarik gogorrenak. Gaur egun Meakako gurutzea dagoen ingurune horretan. «Bataila horren omenez jarri zuten bertan gurutzea, eta uste dugu aurretik egurrezkoa zela. Gurutze horren plakak zioena ere topatu dugu dokumentu zaharretan».

Sarraski handia

Tropa karlista eta liberalen arteko Belabietako bataila odoltsua izan zenaren zantzuak dituzte ikerlariek. «Dimentsio handiko borroka izan zen eta soldadua batak bestearen atzetik akabatzeko, fusilak kargatzeko astirik izaten ez zutenez, gerra baionetaren puntako laban horrekin egin zutela uste dugu». Horrela ulertu daiteke baja kopurua. Antonio Pirala garaiko historialariak dio 600 baja izan zirela borroka horretan. Almorzak dioenez, 300 alde batekoak eta beste hainbeste beste aldekoak. «Bajak gauza bat dira eta



hildakoak beste bat. Hala ere, asko izango ziren egun hartan ez bada hurrengo egunetan hil zirenak. Guk heriotza agiriak topatu ditugu Villabonan bertan, Andoainen, Berastegin, Leitzaan, Elduainen eta baita Irunen ere. Agiri horietan garbi esaten da Belabietako batailan hildakoak direla».


Aranzadiko ikerlariek, besteak beste, Berastegiko artxiboan agiri bat topatu dute, non aipatzen den batailaren biharamunean 125 lagun kontratatu zituztela Belabietatik hildakoak eta zaurituak jaitsi eta ospitaleetara eramateko. «Oria ibaiaren bi ibarrak kontuan hartzen baditugu, liberalek Andoain, Villabona eta Hernani aldera jaitsi zituzten hildakoak eta zaurituak. Esate baterako, Donostiara, batailaren hurrengo egunean, 200 zauritu eraman zituztela jakin ahal izan dugu. Irunen, adibidez, eraikin publiko asko ospitale

bihurtu zituzten eta 500 ohe inguru egokitu zituzten. Sortu berria zen Gurutze Gorriak 259 hilotz jaso omen zituen Belabietan. Liberalek iparraldera eramane zituzten zauritu eta hildakoak. Karlistek, berriz, Berastegira jaitsi zituzten zaurituak, handik Leitzara eta Lizarrara eramateko».

Aranzadiko ikerlariek aipatu dutenez, batailaren eztandan hamabi herri daude inplikatur. «Soldaduak bertan zeudelako edota zaurituak eta hildakoak bertara eraman zituztelako. Herri askoren parte hartzea dago borroka honetan, nahiz eta zentralitatea Amasa-Villabonak duen». Horregatik uste dute ikerketaren arduradunek bataila honen ikerketak oraindik ere gehiagorako eman dezakeela. «1.500 dokumentu ematen dute azterketa gehiagorako mamia».

Karlismoa mugimendu konplexua

Hieroglifikoen idazkera aztertzen hamabost urte inguru eman zituen Almorzak, eta bere esanetan karlismoa izango da gure herrian hieroglifikoen idazkera deszifratzea bezain zaila den mugimendu bat. «Argudio bat eta kontrakoa sostengatzeko erabili izan dute karlismoa eta euren artean ere ugariak izan dira



94 hilotzi lur emateko Andoaingo parrokoaren agindua, 1873ko abenduaren 10ean.



Lizarraga jeneral karlista.



enfrentamenduak. Horrek zaildu egiten du interpretazio egokiak egin ahal izatea».

Santa Kruz apaizaren kasua aipatu du Almorzak. Belabietako bataila gertatu zen unean inguruan baitzebilien. «Haserre zetorren. Libera-lei aurre egiteko moduen inguruan desadostasun handiak zeuzkaten

eta sakoneko eztabaidak zituzten euren artean. Ez zioten inoiz barkatu eta Santa Kruzen gizon batzuk fusilatu zituzten. Lizarragarekin kontuak argitu

«Ondo inguratuta zeukaten Tolosa eta indar handia behar izan zuten setioa puskatzeko»

nahian etorri zen inguru honetara 1873ko udazkenean». Gai hau sakonago aztertuz, beste ikerketa le-
rro bat zabaldu daitekeela uste du historiagile amasarrak.

Euren arteko desadostasunak handiak izanagatik, Aranzadiko ikerlariaren ustez, soldaduen artean bazegoen sentimendu «zintzo»

bat, euskalduna, foruzalea eta karlista zena. «Mugimendu atzerakoitzat jo izan da karlismoa, baina bertako gazteek foruak defendatzen zituzten, soldadus-



Belabieta mendiaren magalean gertatu zen bataila, 1873ko abenduaren 9an. **J. M.**



kara joan nahi ez zutelako. Izan ere, soldaduskara joatea baino egokia-go da esatea gerrara bidaltzen zituztela. Beranduago, foruak deuseztatu zituztenean Filipinetara edo Kubara joatea tokatu zitzairen euskaldun askori. Hemengo jendea, ez zen bereziki erregezalea, erregagai karlistaren alde jarri bazen hark foruak errespetatuko zituela hitz eman zuelako izan zen».

Karlistekin borrokatu zena jende xumea zela uste dute Aranzadiko ikerlariek. «Jakiten zailagoa dena da, militar profesionalak ote ziren». Belabietako bataila zeinek irabazi zuen zehaztea ere ez da erraza Almorzaren esanetan. «Zeinek irabazi baino, esango nuke denek galdu zutela». Liberalek setioa puskatzea lortu zuten eta jan-edian sartu zizkieten tolosarrei. «Hala ere, karlistek esaten dute, setioa puskatu arren, berehala alde egin zutela liberalek eta eurak aurreko posizioetara itzuli zirela.

«Inoiz ez da hainbeste jende armatu ibili borrokan Amasa-Villabonako lurretan»



Santa Kruz apaizaren miliziak erabilitako estandartearen erreplika. **J. M.**

Ez zen irabazle garbirik izan, beraz».

Arrasto sakona utzi zuen, hala ere, Belabietan gertatutakoak. Egun bakarrean 600 baja izatea, datu «ikaragarria» dela nabarmendu dute ikerlariek. Beraz, gertaera historiko hori ilunpetik atera eta gertaera modu zientifikoan aztertzeke asmoa adierazi du orain Amasa-Villabonako Udalak. Errealitatera ahalik eta gehien gertutzeko eta herritarrei ezagutarazteko artxiboetako dokumentazioa jaso, sailkatu eta ikertzen ari da Aranzadi zientzia elkarteia iaztik. Aurten, 8.000 euroko inbertsioa egingo du udalak lan horiek gauzatzeko, eta datorren urtean, ikerketa historikoa amaitu eta informazio panelak ezarrita bukatuko dute lana. Euren herriko lurretan gertatutakoa gogoratu ahal izango dute amasarrek eta billabonatarrek Belabietako batailaren 150. urteurrenean.

KARLOS ALMORZA ARRIETA
HISTORIAN DOKTOREA

«HAU DA BORBOIEK AMASA-VILLABONAN UTZITAKO HERENTZIA»



Zergatik da garrantzitsua duela 150 urte izandako gertakariak ezagutu eta gogoratzea?

Beste galdera batekin erantzungo dizut: ezagutzen al dugu gure historia? Nik Belabietan gertatu zena jendeari kontatzen diodanean, aho-zabalik geratzen da. Hori gertatzen da ez dugulako gure historia ezagutzen. Gauza batzuk ezagutzen ditugu, baina ez behar bezainbesteko sakontasunez. Arlo batzuetatik begiratuta, behintzat, Euskal Herriko Unibertsitateko Historia fakultateko Historia Garaikidea ikasketa itxi eta Madrilera eramango balute ez genuke ezer galduko. Garbi esanda. Historia garaikideari ez zaio behin ere garrantzirik eman. Beste alor batzuetan egongo da jende konpetentea, baina ez behintzat historia garaikidearen arloan, irakasle gutxi batzuk kenduta. Ukatu egin zaigu ezagutza hori. Hemen inguruko udaletxeetara joan eta era zientifiko eta mekanikoan artxiboak hustea ez da sekula egin izan.

Aranzadik lan hori egin du. Zer topatu duzue Belabietako batailaren inguruan?

Guretzat ikaragarritzko ezustea izan zen hainbeste dokumenturekin topo egitea. Guztira, 1.500 dokumentu inguru izango dira topatu ditugunak eta argibide dezente ematen dute gertatutakoaz. Garai ho-

rretako jeneralek ere idatzi zuten nolakoa izan zen bataila eta horrek erraztu egiten du gertatutakoa ikertzea. Dena den, artxiboko materialaz ari garela, kuantitatiboki izan dezaketen pisuaz aparte, kualitatiboki dokumentuek zein indar duten ikusi beharko genuke. Esan dezaket, hemen topatu ditugunetatik abiatuta, gutxienez, hiru doktore tesi egin daitezkeela. Izan dezakeen segidak ematen dio ikerketari berrari balioa. Aranzaditik irekitasuna dugu zentzu horretan, eta guretzako ona litzateke artxiboetan aurkitutako dokumentuen ikerketa horrelako lan batekin amaitzea. Ikergaia oso aberatsa da detaileetan. Argitaragarriak diren hari mutur asko ditu Belabietako batailak.

Udalaren aginduz burutzen ari zareten ikerketa lanak argitalpen bat izango al du emaitza gisa?

Oraindik ez dugu erabaki zer egin. Horrelako lan baten ardura hartzen dugun momentuan argi dagoena da modu batera edo bestera hedatu behar dugula egindako ikerketa. Izan daiteke txosten bat, grabazio bat edota liburu bat. Dagoeneko erabaki dugu Belabietako batailari buruzko informazio panelak jarriko ditugula bataila gertatu zen tokietan.

Indusketa lanik egingo al duzue ikerketan?

Bataila nolakoa izan zen ikusita, argi eta garbi dugu aztarnak egon egongo direla. Ez daukagu zalan-tza txikienik ere. Baina guk ez dugu arkeologia lanik egingo. Lubakiren bat topatzen badugu Aranzadi zientzia elkarteko Alfredo Moraza kideari jakinaraziko diogu, guk gu-

rea bukatu ondoren, berak ikertu dezan; eta berdina egingo dugu lur azalean materialen bat edo tresna-ren bat agertzen bada; taldeko kide den Joseba Sal-badorrek ikertuko du.

Zein epetan burutuko duzue ikerketa?

Dagoeneko dokumentazioa bildu dugu Amasa-Villa-bonako eta inguruko herrietako artxiboetan; orain ari gara dokumentu horien interpretazioa egiten, eta lana amaitzeko, esan bezala, informazio panelak ja-rriko ditugu. Bat Villabonan bertan jarriko genuke, eta beste bat Amasan. Hirugarrenengo bat Meakako gurutzean jarri nahi genuke eta laugarrena Belabie-tako gainean. Saiatuko gara Uzturren ere beste bat jartzen eta ikusiko dugu ea baimenak lortzen ditugun horretarako. Amasamendin barrena, borrokak gerta-tu ziren lekuetan ibilbide bat markatuz beste pare bat jartzeko aukera ere aztertuko dugu. Egun horre-tan, hemen Amasamendin zer gertatu zen jakiteko eta ideia orokor bat azaltzeko balioko dute panelek.

Batailaren errepresentazio bat egiteko aukera aipa-tu da.

Bai. Hori antolatzea ez da Aranzadiren lana, baina inork ardura hori hartuko balu aukera polita dela iru-ditzen zaigu. Gure lanaren muina historia berreskura-tzea da. Guk ikerketa zientifikoaren arloan egiten dugu lan baina historia birgogoratzeko egiten diren gainerako ekimen guztiak ongi etorriak dira guretzat. Errepresentazio bat eginez erakutsi dezakegula due-la 150 urte Belabietan gertatu zena? Bada gure alde-tik behintzat, aurrera, arazorik ez. Gure historia hobe-to ezagutzeko aukera emango liguke horrek. Beste hainbat herritan ere egiten dituzte gisa bereko ekital-diak, txukun askoak, eta islatzen dute bere garaian

«Ikergaia oso aberatsa da detaileetan. Argitaragarriak diren hari mutur asko ditu»

gertatu zena. Amasako festen ba-rruan, batailaren urteurrena baino aste batzuk lehenago horrelako ekitaldi bat egingo balute ez litza-teke txarra izango. Gure aldetik ez dago arazorik.

Baina gerra bat izanik, badago zer ospatua?

Horrelako errepresentazio bat egiteak, ez du esan nahi derrigor festa bat izango denik. Historia birgo-goratzeko ekitaldi bat izango litzateke, eta Amasatik gora soldaduak nola datozen ikustea, ikusgarria izan-go litzateke, irudi bezala indartsua. Dena den, ez dago zer ospaturik; are gehiago, inork irabazi baino denek galdu zutela esango nuke. Amasa-Villabonako lurretan Borboien herentzia horixe izan zen: 600 baja, eta horietako asko eta asko hildakoak.

Amasa-Villabona mapan jartzen lagunduko al du Belabietako bataila gogoratzeak?

Bai. Borroka hartan zentralitate handia hartu zuen Amasa-Villabonak eta iruditzen zait merezi duela hori azpimarratzek. Hirugarren karlistaldiaz aritzen gara maiz jakin gabe gerra horren barruan Gipuzkoan izandako batailarik gogor eta odoltsuenetako bat gure lurretan gertatu zela, guk mendira goazela ze-harkatzen ditugun paraje eder horietan. Belabietakoa da Amasa-Villabonako lurretan izandako gertakizun militar historiko azpimarragarriena. Nik XIX. mendeko artxibo guztiak arakatu ditut, gerra napoleonikoetatik mende amaiera bitartekoak, eta esan dezaket, oro har, Amasa-Villabonaren historia oso triste da. Ia ehun urte pasa zituzten militarrek ordaintzen.

Zer-nolako lantaldea osatu duzue ikerketa hau au-rrera eramateko?

Lantaldean Jexux Bidaola *Txirrita*, Jose Luis Iraola *Puxkas* eta hirurok gabiltza. Aranzadiko Memoria Historikoaren taldea laguntzen ari zaigu eta baita Jo-seba Salvador ere. Hainbeste dokumentu esku-arte-an ditugula, badakigu ziur ikerketa berme guztiekin egin ahal izango dugula. Lan txukuna aterako da, se-guru gaude.



22.korrika BADATOR!

Jarraitu Korrika **Ataria.eus**-en



Ataria KORRIKArekin bat!

22.korrika



Amurriotik Donostiara
2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

Udan kazetaritza praktikak egin nahi dituzu BERRIAAn?

Treba zaitez kazetaritzan, BERRIAko praktikaldiaren bidez

Hamabost lanpostu **KAZETARITZA** praktiketarako uztailean eta abuztuan

Andoaingo, Bilboko, Gasteizko eta Iruñeko erredakzioetan

Azterketa eguna: maiatzaren 3a, asteartea (10:00).

Proba online izango da.

Interesa baduzu, bidali zure curriculum **idazkaritza@berriataldea.eus** helbidera,
apirilaren 29a baino lehen, 'KAPR22' erreferentzia zehaztuz.



saridunak

Atarikideentzat **2 sarrera** ditugu



'AMARAUN. Irunez iraun'

bertso eta dantza ikuskizunaren estreinaldia

Apirilak 7, osteguna
19:30ean · Villabonako Gurean
Idoia Lahidalga (Tolosa)

Atarikideentzat **2 sarrera** ditugu



**Acunsa Gipuzkoa -
Melilla Sport Capital**
partida ikusteko

Apirilak 17, igandea
17:00etan · Donostia Arenan
· Izaskun Apezetxea (Ibarra)

Atarikideentzat **2 afari txartel** ditugu



Udaberri dantza taldeak antolatutako
Erromeriarako afari txartelak

Apirilak 9, larunbata
21:00etan · Tolosako Zerkausion
Onintza Arriaga (Anoeta)

Ataria jarriko da saridunekin harremanetan

Sapiens eta Neanderthalensis artean



**JOXE AGUSTIN
ARRIETA
EGIGUREN
ERRETIRODUNA**

Une batzuetan zalantzan jartzen dut gizona hain sapiens ote den. Eguneroko jokabideetatik diot. Batzuetan pentsatzen dut gure historia tigreen eta putreen istorio bat dela. Bada, kit beti ez dela horrela, historian asmatzaile handiak beza-

lako pertsona bikainak –gizonak eta emakumeak– aurkitzen direlako, baita misiolariak ere, mundu hobe baten alde lan egiten duten boluntario guztiak, baina tristeena da adimen sapiensa gehiago erabiltzen dela depredatzeko, zapuzteko, hiltzeko eta menderatzeko talde-lana eta elkar-bizikidetzara eraikitzeko baino.

ohar bat: «Kontuz homo sapiensekin!». Horrela al da? Itxurakeriaren, boterearen eta endiosamenduaren bidetik al goaz? Edo sor al daiteke mundu berri bat, etikoki osasuntsuagoa eta solidarioagoa? Egia da gerrako albisteez, biktimek eta suntsipen-irudiek, mundu hobe bat aztoratzen eta zailtzen dutela.

Zalantzarik gabe, gure aroa adineko asko eta ume gutxiak da, familia txikietakoa, eta, aldi berean, medikuntzaren aurrerapenak bizitza-luzera sendotzen dute. Egia al da aro garaikidea aldaketarekin eta aurrerapenarekin, garapenarekin eta gaitzitatearekin lotuta dagoela? Zalantzak ditut. Ez naiz ezkorra, baina oraina gero eta behin-behinekoagoa egiten zait, eta ez da guztiz gogobetegarria adineko izateko, harrera beroaren eta parte-hartze sozialaren beharra sentitzen jarraitzen baitu. Une batzuetan uste dut gure norabide sozial eta politikoa oker doala. Ener-

«Gogora datorkit Yuval Noah Harari (1976) idazle israeldarraren ohar bat: ‘Kontuz homo sapiensekin!’ Horrela al da? Itxurakeriaren, boterearen eta endiosamenduaren bidetik al goaz?»

Nire ustez, Mario Benedetti izan zen gizakia (*homo canibal*) ere badela, eta ez zitzaion arrazoirik falta; izan ere, zentzugabekeriak egin ditugu edo egiten ari gara ingurumena hondatzeko edo gatazka giro unibertsal bat sustatzeko, eta ez dezagun esan gizateariaren desberdintasun bortitza, mundu desberdinez ari baikara, hala nola Hirugarren Munduaz edo Lauugarren Munduaz, hau da, hiri handietako periferiez.

Ukrainakoaren ondoren, une batzuetan zalantzan jartzen dut gizona hain *sapiens* ote den. Gogora datorkit Yuval Noah Harari (1976) idazle israeldarraren

gia-krisiaren eta Ukrainaren zoritxarretik ikasiko dugu ala hondamendi berriak behar ditugu?

Sentitzen dut gizona sapiens gehiago bada, bere babes solidarioa gehiago garatuko duela edo bultzatu behar duela. Hori espero dut. Mundu berri, etikoa, zuzenagoa eta osasuntsuago batean sinesten dut. Adinean aurrera egin ahala, zientziaren, arteen, historiaren, politikaren edo kulturaren arloetan beren onena eman zuten gizon-emakumeen zerranda bat dagoela onartzen dut. Ulertzen dut solidarioa ez dena ez dela sapiensa. Beste gauza bat da.

AGENDA

OSTIRALA

APIRILAK 8

ADUNA

KORRIKA

09:35. Korrikari ongi etorria.

ALEGIA

KORRIKA

19:00. Sutarri dantza taldearen *Dantza soinu* emanaldia, zinean.

20:15. Zahagiardoa plazan.

21:40. Korrika 22, Alegian.

23:00. Kontzertuak plazan, Afu eta Lukiek. Eguraldi txarra egiten badu kontzertuak Gaztetxean izango dira.

AMASA-VILLABONA

KORRIKA

09:00. Gosaria, Berdura plazan.

09:55. Korrika.

17:15. Kittu, kalejira.

Errebote plazatik abiatuta.

19:00. Korrika herrikoia, Otsabitik abiatuta.

21:00. Afari herrikoia.

Barrikotea 3 euro. (Irabaziak Korrikara bideratuko dira). Berdura plazan.

23:00. Distopia elektrotxaranga.

AMEZKETA

KORRIKA

15:15. Korrika Txikia, plazatik Zumadi eskolara.

Ondoren. Ikasleen koreografiak Zumadi eskolan, merienda guraso elkarteak antolatuta.

19:00. Barrikotea plazan (edaria udalak, jana norberak).

21:00. Kotxeak hartuta Alegiara, Korrikan parte hartzera.

ANOETA

KORRIKA

10:30. Korrikaren iritsiera.

23:00. Kontzertuak Gaztetxean. Odolaren Mintzoa + Pleura.



Lekukoa hartzeko prest

22. Korrika gaur goizean sartuko da eskualdean Adunatik, 09:29ean; eguerdian Bidaniatik atera eta iluntzean Ikaztegieta sartuko da berriro ere, Berastegin aurtengoz gurean agurtzeko. Unean uneko jarraipena ATARIA-n.



Egitararau osoa

IKASTAROA

17:30. Ahalduentze ikastaroak emakumeentzat. Mindfulness. Bost euro. Gela balioanitzean.

UDABERRI MUSIKALA

18:30. Loatzo musika eskolaren udaberri musikala. Big Band eta Anakruxa, Iturtxulo plazan.

ASTEASU

KORRIKA

19:00. *Luze edo Motz* bakarriketa saioa udaletxean (Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai).

BALIARRAIN

KORRIKA

Bokata jatea eta korrika.

BERASTEGI

KORRIKA

15:00. Korrika Txikia, herrian zehar.

21:00. Zahagiardoa.

Ondoren. Kantu saioa, guztion artean.

23:43. Korrikari ongi-etorria.

Amaitzeko. Urepele elkartearen elkartuko dira egarria asetzeko.

BERROBI

KORRIKA

15:30. Korrika txikia, eskolak antolatuta.

Ondoren. Merienda haurrentzat, guraso elkarteak eskainita.

19:00. Trikipoteoa, Jon Ostolaza trikitilariarekin.

AGENDA

20:30. Zahagiardoa.

23:00. Korrika Berrobin.

Ondoren. Trikitilariak alaituko du giroa ostatuan.

ELDUAIN

KORRIKA

19:00. Txokolatada. Herriko plazan, musikaz alaiturik.

21:00. Afaría. Plazan edo elkartean.

22:45. Korrika gunetara. Herriko kilometroa 2.169ren panela Ugane inguruan egongo da. 23:15tarako bertan egon behar da. Erronka. Uganetik Arrosirainoko bide osoa baietz herriko hamar lagunek baino gehiagok egin!

IBARRA

KORRIKA TXIKIA

15:00-16:30. Elkartasun kilometro krosa-ikastola.

16:30-17:00. Bideo antolaketa.

17:00-17:30. Bideo grabaketa.

17:30-18:00. Ginkana antolatu.

18:00-19:00. Ginkana jolasa.

16:30-19:00. Auzokoren hizkuntza bisibilizazioa.

19:00. Kantu-jira.

20:30-22:00. Barrikotea.

22:00. Giroartekin kalejiran Ibarra sarrerara.

22:45. Badator Korrika.

IKAZTEGIETA

KORRIKA

15:45. Txokolatada, plazan.

17:00. *Irudipuinak* kontaketa saio marraztua, udaletxe azpiko aretoan.

19:30. Zahagiardoa, plazan.

21:20. Korrika.

IRURA

KORRIKA

10:12. Korrika Irurako kaleetan.

17:00. Korrika kirol saltsa. LH3 eta LH6 bitartekoek



sei taldetan banatuta lau kirol-joko ezberdinetan parte hartuko dute. Futbola, saskibaloia, skate-irristaka eta xarea. Frontoian.

19:00. Dastaketa komentatua Korrika festaren barruan, garagardoak eta bertako produktuak. Tiketak salgai Xare kafetegian eta Trinketeen, 10 euroan (erosteko azken eguna apirilaren 1a). Herri eskolako aretoan.

LIZARTZA

LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA

16:00. Liburu trukea.

KORRIKA

19:00. Pituxaren emanaldia.

19:30. Zozketa.

22:30. Altzoko kruzean (Tolosara). 2.158 km. Korrika.

GIPUZKOAKO

ESKOLARTEKO TXAPELKETA

20:00. Azken kanporaketa. Afarirako txartelak *Bertsosarre-rak.eus* -en salgai,

12 eurotan. Amets Aizpurua, June Aiestaran, Danel Etxeberria, Malen Gartzia, Izar Zelarain eta Sustrai Goenaga ariko dira. Txirrita elkartea.

ORENDAIN

KORRIKA

Goizean. Haurreskolako Korrika Txikia.

17:00. Korrika Txikia.

Ondoren. Txokolatea banatuko da.

19:00. Zahagi ardoa. Udalak edaria jarriko du.

21:40. Tipi Tapa Tipi Tapa...

Korrika! 2.153 kilometroa Alegiako industriagunearen amaieran (Alegia Pentsuak enpresa inguruan).

TOLOSA

AURKEZPENA

18:00. Mahai-ingurua. Hizkuntzen aldeko herri ekimenak. Lekukoa pasa.

Ondoren. Luntxa eta kontzertuak: Zuriketa Beltz eta Julu eta Gloria raperoak.

22:00. Denok Korrikako 2160. kilometrora.

DANTZA IKUSKIZUNA

20:30. *Arima* Amaia Elizaranen eta Liam O'Maonlainen eskutik, Leidorren.

AZOKA SOLIDARIOA

Booloo elkarteak antolatuta azoka solidarioa. Ostirala eta larunbata (09:30-13:00 eta 16:30-20:00) eta igandea (09:30-13:00), kultur etxean.

ZIZURKIL

KORRIKA

09:42. 2024 kilometroa Adunatik Zizurkilera iritsiko da.

09:48. 2025 kilometroa Zizurkilgo Eroski paretik Zubimusura.

Ondoren. Korrika Txikia eta hamaiketakoa.

LARUNBATA

APIRILAK 9

ALEGIA

PARTIDA

17:00. Intxurre vs. Realeko beteranoak. Puzgarriak txikientzat futbol zelai inguruan. Intxurreren 50. urteurrenaren harira. Elorri futbol zelaian.

ANOETA

KORRIKA KULTURALA

14:00. Sagardotegia.
17:00. Haurrentzat jolasak.
Ondoren. Txokolate jatea.

HERNIALDE

IKASTAROA

10:00-13:00 eta 15:00-18:00.
Sudur gorri baten indarra clown ikastaroa. Josu Zubia eta Itziar Arkauzen eskutik (Potx eta Lotx).
Prezioa: 25 euro. Izen-ematea: pailazoikastaroa@gmail.com.

IRURA

CYCLING AIRE LIBREAN

11:00. Cycling saioa egingo da herriko plazan, bertaratzeko aukera dutenek ahalik eta ondoen pasatzeko helburuarekin. Saioa gidatua izango da eta ordu eta erdiko iraupena izango du. Inork bere etxetik bizikleta estatikoa edo rodilloa eraman nahiko balu, ongi etorria izango da. San Migel plazan edo Trinketeko aparkalekuan.

TOLOSA

DANTZARI TXIKI EGUNA

ETA ERROMERIA

Udaberri dantza taldearen XV. Dantzari Txiki Eguna.
10:30. Kanpoko taldeak agurtu eta hamaiketako Plaza Zaharrean.
11:00. Tolosako kaleetan barrena ibiliko dira haurrak dantzak



eskaintzen, Alde Zaharrean eta Erdigunean.

12:15. Triangulotik Plaza Berrira.

13:00. Talde guztiek batera dantzatuko dute, Plaza Berrian.

16:00. Plaza dantza, Udaberri dantza taldearen fanfarrearekin. Erromeriaren barruan kalejira, afaria Zerkausion eta Laket taldea. Sarrerak Orbelan eta Asteasuarran 15 eurotan.

19:00. Fanfarre-poteoaren hasiera, Plaza Zaharretik.

21:00. Afaria, Zerkausion.

23:00. Erromeria Laket taldearen eskutik.

00:00. Larrain dantza Udaberriko fanfarrearen eskutik.

ABERRI EGUNA

Goizean. Apirilaren 17an Iruñean ospatuko den Aberri Egunera joateko deialdia luzatu du EH Bilduk. Horri begira goizean zehar,

Trianguloa plazan izango da EH Bildu Ikurrinak eta Nafarroako banderak saltzen.

MARKETING EKINTZA

10:00-19:00. *Joan-etorriak* Street Marketin Ekintza. *Joan-etorriak* lelopean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak garraio publikoaren erabilera sustatu eta balioan jartzeko ekintza. Foruen plazan.

TRUKE AZOKA

12:30-14:00. *Landareen trueke tarte*. 3 tabernan.

PAILAZO IKUSKIZUNA

12:00 eta 16:00. Pirritx, Porrotx eta Marimotots. *Kuikui*. Irurako Ikastolak antolatuta. Bi saio izango dira, Leidorren.

KONTZERTUAK

20:00. Hodeiertz abesbatza, Oroith abesbatza eta Arimaz kamera orkestraren Aste Santuko

kontzertua. Maria Martin sopranoa, David Azurza kontratenorra, Aitor Garitano tenorra eta Juan Laboreria baritonoa. Enrique Azurzak zuzenduta. San Frantzisko elizan.

ZIKURKIL

PILOTA TXAPELKETA

16:00. XXIII. Aiztondoko Pilota Topaketa. Finalak, Intxaur pilotalekuan.

IGANDEA

APIRILAK 10

AMASA-VILLABONA

HAUR ANTZERKIA

17:00. *Tempus* haurrentzako antzerkia, El que ma queda de Teatre taldearen eskutik. Joan Fernandez aktorearekin; Juanjo Marin eta David Anguera piano jotzaileekin. Testurik gabea. Sarreraren prezioa: 6 euro. Gurea antzokian.

AMEZKETA

INAUGURAZIOA

12:00. Pello Zabala gunearen inaugurazio ekitaldia.

BERROBI

KORRIKA

17:30. 'Frontona' ikuskizuna.
***Irakurri erreportajea 26-29 orrietan.**

TOLOSALDEA

MENDI IRTEERA

07:30. Alpino Uzturreren mendi irteera. Argiñano-Elimendi-Munarriz mendi irteera. Sei orduko irteera. San Frantzisko elizatik.

ZIZURKIL

KONTZERTUA

12:00. Kontari abesbatzaren kontzertua, San Millan elizan.

ASTELEHENA

APIRILAK 11

AMEZKETA

ASTE SANTURAKO

HAURREN ESKAINTZA

10:00. Eskulanak.

Gaztelekuan burutuko da ekintza, baina plazan elkartuko dira bai hasiera orduan eta baita amaiera orduan ere.

Bi txanda izango dira.

10:00-11:30. HH 4 - LH 3.

11:45-13:15. LH 4 - LH 6.

BERASTEGI

GOIZAK LAGUNARTEAN

10:00-13:00. 2010-2019 bitartean jaiotako haurrentzat.

TOLOSA

ZIRKU TAILERRA

Aste Santuan zirku tailerrak. 2006 eta 2015 artean jaiotakoentzat.

Gure Zirkuak antolatuta. Apirilak 11-14 edo 19-22. 60 euro.

Gure Zirkugunean, San Esteban auzoan.

IKASTAROA

09:00-11:00. KZ Gunea. Sare sozialak. Aurrez aurreko formazioa. *Facebook zure smartphonean.* Euskaraz. Rondilla kaleko KZ Gunean.

ODOLA EMATEA

16:30-20:10. Hileroko odol-ateratzea, Gipuzkoako Odol Emailen elkarteak antolatuta. Aurretik txanda hartzea beharrezkoa da, telefonoz: 900 303 404. Egunean bertan goizez deitu behar da (08:30-14:00). Kultur etxeko Topagunea gelan (1.solairuan).

ZIZURKIL

UDABERRIKO OPORRAK

Sukaldaritza tailerra LH 4-6koentzat, Gaztezulon.

ZINEMA



CAMERA CAFE, LA PELICULA

Larunbata (19:00);
igandea (19:00).
Tolosa, Leidor.



CODIGO EMPERADOR

Larunbata (19:30 eta 22:00);
igandea (19:30)
eta astelehena (20:30).
Amasa-Villabona, Gurea.



LLEGARON DE NOCHE

Larunbata (21:30) eta
astelehena (19:00).
Tolosa, Leidor.



D'ORTOGNAN ETA HIRU MOSKETXAKURRAK

Igandea (17:00).
Tolosa, Leidor.



HAU DA
LIRDINGA!

Sudokuak


Beheko sudoku hauek gaineke irudiko laguntxoekin ibilerarekin dute zerikusia. Barraskiloea ASTIRO doa beti, eta erbia, berriz, ARIN. Osa itzazu bi sudokuak, hutsik dauden laukietan behar diren hizkiak idatziz (seiko sudokuan A, S, T, I, R eta O, eta laukoan A, R, I eta N).

Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



NOLA SORTZEN DIRA UMEAK?

Nola lortzen dira erantzunik gehienak? GALDETUZ, jakina. Hitz ederra, sudoku handi hau osatzeko. Zortzi hizki dituzu hutsuneak betetzeko (G, A, L, D, E, T, U eta Z).



Bilatu

Animalia hauetatik bat ez dago mundu-mapan. Zein?



Handitik txikira

Ordena itzazu hartz hauek handitik txikira, 1etik 9rako zenbakiak erabiliz (handienari 1 eman eta txikienari 9).





Egilea: Garbiñe Ubeda

Hara!

Gaixoak pinguinoak!
Laster beren bizimodua
egokitu beharko dute,
Lurraren tenperatura
igotzen ari baita. Beno,
baina hemen ez dirudi
horren gaizki daudenik
ere, ezta? Aurki itzazu
bi irudien artean dauden
aldeak. 16 dira guztira.



DOMINOAN



Bete itzazu
lauki zuriak
domino-zati
honek
zentzua
izan dezan.



Eguzkia · Lurra · ilargia · meteoritoa · planeta · izarra

Denbora-pasen
erantzunak
hemen.



KANTXAN SAKEA KONTRAKANTXAN

Ezohiko pilota partida ikusteko aukera izango da igande honetan, Berrobiko Urreburu pilotalekuan, 17:30etik aurrera: 'Frontona' ikuskizuna.

Irati Saizar Artola

Pilota partida bat aitzakia hartuta, gauza gehiago gertatzen dira *Frontona* ikuskizunean. Kantxako partidaz gain, kontrakantxan ikusleek ere jokatu behar-ko dute partida eta erronka bat izango dute guztiek: 22ra iristea. Iñigo Otaegi billabonatarra, Josu Artutxa tolosarra eta Unai Ormaetxea andoaindarra dira saioa gidatzen dutenak, Janire San Sebastian eta Anne Maiza zizurkildarrak arituko dira pilotan, eta emanaldira batu berri den Andoni Egaña bertsotan arituko da.

Izenak dioen moduan, frontoia da emanaldiaren agertokia, kasu honetan, Berrobiko Urreburu pilotalekua, eta bi pilotariak hasiko dira buruz buru partida jokatzeko. Otaegik kontatu moduan, «jendea pilota ikustera doa, eta ikusleak ez du espero mikrofonoa jarriko diogunik aurrean». Izan ere, kantxan tantoa amaitzean, antzezleak kontrakantxara doaz, eta publikoarekin hartu-emanen has-ten dira, galde-erantzunen bidez. «Euskal Herriko kulturaren inguruko galderak egiten ditugu, tokikoagoak eta orokorra- goak direnak». Publikoa zirika- tzen ibiltzen dira, erantzun bila. «Ikuslea ikuskizunaren parte bihurtzen da, bete-betean».

«Jendea pilota ikustera doa, eta ikusleak ez du espero mikrofonoa jarriko diogunik aurrean»

IÑIGO OTAEGI



Ondo pasatzetik baduelako saioak, baina baita transmisiotik ere. Herri jakintza jartzen dute jomu-

gan. «Galderak era askotakoak izaten dira; alde batetik, jendeak ondo pasa dezan nahi dugu eta ondo pasatzeko tokiko erreferentziak egiten ditugu, kasu, Berrobiko dendariari buruzko komentario graziosoren bat, baina beste aldetik ere ondo dago libertimenduen inguruan hitz egi-

ETA ERANTZUNA



Argazkiak: **EGOITZ BENGOTXEA**

tea, literaturaz aritzea, finean, fokua urrutiratzea eta herri jakintzaz hausnartzea», esan du Otaegik. Ikusle-ari barruan zerbait mugitu araztea badelako ikuskizunaren helburuetako bat. «Kritika pertsonaletik egin baino, jendartetik egin nahi dugu, konturatzeko gaur egungo gazteak zein puntutan gauden eta ze euskaldun inkontzienteak garen».

Galderaren erantzuna ez da-

«Berrobin bada mamia, tokiko kontu eta bitxikeriekin xaxatzeko moduan izango gara»

IÑIGO OTAEGI

kienak, ez du zertan kezkatu. «Ez badakite erantzuna, hobe», dio billabonatarrak, «guri horrek trufarako balio digu, guretzat urre gorria da eta horren inguruan txisteak egin ditzakegu». Erantzuna asmatzeko pistak ematen dituzte ordea, eta soluzioa erraz xamar jartzen dute, eta gainerakoan, beraiek esaten dute erantzun zuzena: «Zirikatzea da asmoa, baina ez ebidentzian uztea, azken batean, jendeak erantzuna zein den jakin dezala nahi dugu, eta erantzuna esplikatzeko ere saiatzen gara; dena ez da zirika eta txistea». Galderen bidez, herri bakoitzera moldatzen dute ikuskizuna, herrira egokitzen den produktu mota bat delako: «Herri bakoitzari berea eskaini behar zaio».

Horrek inprobisaziotik ia gidoitik baino gehiago izatea dakar. «*Frontonaren* muina kontrakantxan gertatzen den bigarren partida hori da, kulturaren partida, publikoari planteatzen zaiona, beraz, erantzunak gestionatzeko garaian, guztia inprobisaziotik egiten dugu». Publikoarekin konektatu behar izaten dute, eta horrek emanaldi bakoitza desberdina izatea eragiten du. «Ez da lan erraza, inprobisazioan moldatzen gara, baina eguna eduki behar duzu, eta momentuak eta publikoak exijitu egiten du». Txiste batzuk herri gehienetan funtzionatzen dutela dio

Otaegik, «baina ez denetan».

Pilotatik du, musikatik ere badu, kultura da, antzerkitik badauka eta orain, bertsoa ere batu zaio, taldean seigarren lagun bat fitxatu dutelako: Andoni Egaña bertsolaria. «Ikusten genuen Egaña ondo ezkondu zitekeela gure proiektuarekin, batez

ere, oso pertsona esanahitsua delako eta gauzak esan ere esan nahi genituen eta hausnartzera gonbidatzeko pertsonarik idealena zela iruditu zitzaigun». Bertsoa forma diferenteetan plazaratzen du partidaren zehar, lauzpabost interbentziotan: «Umorea jartzen dio, baina batez ere honi guztiari funtsa, pisua, kritika, gogoeta eta ardura soziala eransten dizkio». Momenturen batean, antzezle lanetan ere jarri dute bertsolari zarauztarra.

Ikuskizunaren erronka nagusia, beraz, 22ra iristea. Pilotariak beraien partida propioa jokatu dute eta publikoa ere gorri eta urdin banatuko da, «bakoitzak bere pilotaria anima dezan». Pilotarien partidak eta ikusleen partidak tantoak gehituko dituzte markagailuan, eta beraz, partida bakarra izango da, Otaegik azaldu duenez: «Markagailua 22ra iristen denean amaitzen da bai pilota partida eta baita kulturaren partida ere».

Graduondokotik plazara

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoa egin zuten Otaegik eta Artutxak Mondragon Unibertsitatean, eta master amaierako lanaren inguruan tutoreekin Tolosan izandako bilera batean izan zuten




Frontonaren ideia Iñaki Urruzola irakasleak. Egun, bera da ikuskizunaren zuzendaria. Emanaldiari forma ematen hastean batu zitzairen Unai Ormaetxea, edizio bat lehenago graduondoko bera egin zuena. Hor-tik bi pilotariak gehitu zitzaizkien, San Sebastian eta Maiza, eta Egaña azkena izan da batzen.

Hasiera batean, hezkuntzatik planteatu zuten





proiektua, bereziki nerabeen eta gazteengan zentratu nahi zutelako. Hori horrela, lehen saioa Tolosako Laskorain ikastolan eskaini zuten, batxilergoko ikasleentzako. «Behin emanaldia eskainita, herriko frontoietan ere funtziona zezakeela iruditu zitzaigun eta probatu egin genuen». Horrela pasa dituzte hamar bat plaza, «gustura, suabe, etxeko epelean...» eta



emanaldiari etorkizuna ikusita lotu dituzte beste hainbat hitzordu datozen hilabeteetarako. Bihar, Andoainen izango dira eta etzi zapalduko dute berriro eskualdea, Berrobin egingo duten saioan. «Berrobin bada mamia, tokiko kontu eta bitxikeriekin xaxatzeko moduan izango gara».





IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA.

Giro nahasia. Goizean hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira eta giro lasaia izango da. Arratsaldean ordea, fronte bat iritsiko da, zerua estali egingo da eta euritara joko du, non arratsalde osoan zehar eta gauean zaparradak izango ditugun. Haizeak goizean hego-mendebaldetik zakar joko du; arratsaldean aldiz ipar-mendebaldera egingo du. Temperatura jaitsi egingo da, 18-19 gradutan joaz goia.

LARUNBATA

Jasotzeko joera hartuko du. Goizean oraindik hodei asko izango da zeruan eta hodei hauek tarteka euri zaparrada txikiren bat edo beste utziko dute. Eguerditik aurrera atertu egingo du eta pixkanaka ostarteak zabaltzen joango dira, egunari zeru nahiko garbiarekin emango diogularik amaiera. Haizeak goizean ipar-mendebaldetik joko du; arratsaldean aldiz eki, ipar-ekialdetik. Temperatura nabarmen jaitsiko da 13-15 gradutan joaz goia.

IGANDEA

Giro eguzkitsu eta epela. Egun osoan zehar goi-mailako hodei batzuk agertuko dira, zeruari kolore zurixka emanez, baina hauek ez diote batere trabarik egingo eguzkiari eta giro eguzkitsuez gozatu ahalko dugu egun osoz. Hego-ekialdeko haizea tarteka harro xamar ibiliko da eta tenperaturaren igoera oso nabarmena izango da, eguneko erdiko orduetan 21-23 gradutan joko baitu goia.

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€

45€

51€

Atarikideek

12€

33€

38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

APIRILAK 8, OSTIRALA
TOLOSA

Egunekoa. Oskar Etxebeste Etxarri.
Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.

APIRILAK 9, LARUNBATA
TOLOSA

Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias.
Kale Berria, 34. 943 69 11 30.

APIRILAK 10, IGANDEA
TOLOSA

Egunekoa. Maria Jose Santamaria.
Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

APIRILAK 11, ASTELEHENA
IBARRA

Egunekoa. Edurne Mujika Martinez.
Euskal Herria, 3.
943 67 09 15.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO
FARMAZIA: TOLOSA.**
LEIRE ANDRES MORANT.
ZABALARRETA, 1. 943 67 38 49.



Key Lan

SARRAILDENDA

Nafarroa etorbidea, 13 behea
TOLOSA
 Tel. Fax. WhatsApp. 943 65 03 13

www.keylan.es



22.korrika
 Amurriotik Donostia
 2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era



Berastegi

HERRI KUTTUNA

APIRILAK 8

15:00etan Korrika Txikia herrian zehar.
 Ibilbidea: San Anton ermita- Plaza - Jesus Altuna
 Kalea - Arandia Kalea - Kale Nagusia - Plaza.
21:00etan Zahagiardoa.
 Ondoren, kantu saioa guztion artean.

23:43an KORRIKari ongi etorria.
Amaitzeko,
Urepele Elkartean elkartuko
gara egarria asetzeko.

CEBANC:

LANBIDE HEZIKETA
 FORMACIÓN PROFESIONAL



eman forma zure etorkizunari

ate irekiak

ERDI MAILAKO ZIKLOAK:

ADMINISTRAZIO KUDEAKETA:
 Maiatzak 14 (larunbata), 11.00.
**SISTEMA MIKROINFORMATIKOA
 ETA SAREAK:**
 Maiatzak 14 (larunbata), 11.00.
SUKALDARITZA ETA GASTRONOMIA:
 Maiatzak 26 (osteguna), 18.30.
OKINTZA ETA GOZOGINTZA:
 Maiatzak 26 (osteguna), 18.30.

GOI MAILAKO ZIKLOAK:

NAZIOARTEKO MERKATARITZA:
 Apirilak 30 (larunbata), 11.00.
MARKETING ETA PUBLIZITATEA:
 Apirilak 30 (larunbata), 11.00.
SUKALDARITZA ZUZENDARITZA:
 Maiatzak 5 (osteguna), 18.30.
TURISMO OSTATUEN KUDEAKETA:
 Maiatzak 5 (osteguna), 18.30.

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA:

INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK:
 Maiatzak 21 (larunbata), 11.00.
ADMINISTRAZIO ZERBITZUAK:
 Maiatzak 21 (larunbata), 11.00.
SUKALDARITZA ETA JATETXE ARLOA:
 Maiatzak 21 (larunbata), 11.00.

INFORMAZIO GEHIAGO: Berio Pasealekua, 50, 20018 Donostia, Gipuzkoa / 943 31 69 00 / www.cebanc.com

MARRAZKI LEHIAKETA

13 urte bitarteko gaztetxoentzat

KORRIKA. EUSKARA. PARTE-HARTZEA

Hitz hauek izan dira marrazkiak egiteko erabili den gaia



SARIDUNA

• Enara Rosas

Marrazkiaren izenburua:
Korrika 22

'Kuikui', Pirritx, Porrotx
eta Marimototsen
ikusizunerako 4 sarrera



SARIDUNA

• Ur Gabellanes

Marrazkiaren izenburua:
Pottoki korrika



Studio Acrylics kutxa



SARIDUNA

• Lucia Gete

Marrazkiaren izenburua:
Korrika unibertsoan



Korrikako materialez
osaturiko sorta